



Sagarak jasotzen, Petritegi sagardotegiaren sagastietan, iazko irailean. GORKA RUBIO / FORU

SAGAR EKOIZPEN TXIKIA

2020ko sagardo sagarraren ekoizpena txikia izan da, aurreko urtekoarekin alderatuta, Fruitel eta Sagardoaren Lurraldea elkarteek osatu duten txostenean adierazi dutenez.

Aurreko urteetan bezala, Fruitel eta Sagardoaren Lurraldea elkarteek azken uztako sagardo sagarraren egoerari buruzko txostena osatu dute: 2020ko sagardo sagarraren heldutasunaren txostena. Besteak beste, txostenean azaltzen dute 2020ko sagardo sagarraren ekoizpena txikiagoa izan dela aurreko urtekoarekin alderatuta.

Azken urteetan bezala, irail hasieran kontrol bat egin da Gipuzkoako zenbait sagastitan, sagarren egoeraren berri izateko. Hamalau sagar mota aztertu dira: aritza, errezila, geza-mina, goikoetxea, manttonia, mokoa, mozo-loa, patzuloa, txalaka, udare marroia, urdin sagarra, urtebi handia, urtebi txikia eta frantses sagarra.

2019a sagar ekoizpen handiko urtea izan zen, eta horrek alternantzia garrantzitsu bat sortu du

sail askotan. Ondorioz, 2020ko sagar ekoizpena aurreko urteko baino nabarmen txikiagoa izan da.

EZBERDINTASUN HANDIAK

Negu epela izan da, hotz ordu gutxiarekin. Hala, sagasti askok loraldi onak izan badituzte ere, horiek luzeak izan dira, eta, eskualdearen arabera, mamitze maila oso ezberdinak izan dituzte. Ondorioz, sagarrondo beraren ba-

rruan ezberdintasun handiak izan dira sagarren heldutasun mailari dagokionez.

2020an izandako uda bero eta lehorreko eguraldia ere nabarmendu behar da. Horren ondorioz, leku askotan sagarren kalibrea txikiagoa da, eta sagarrondo askok estres hidriko handia jasan dute. Halaber, sagar arraren presentzia handia izan da, eta kalte handiak eragin ditu.

Orokorrean, 2020ko irail hasieran, sagastietan azaldutakoari

erreparatuta, puntu hauek nabarmendu daitezke:

- 2019ko datuekin alderatuta, 2020ko sagarren heldutasuna atzeratuagoa etorri da, astebeite inguru, almidoiaren erregresioari dagokionez; baina, aldi berean, azukre maila handia ekarri du. Sagasti askotan, sagarra erruz erorita, eta azpimarratu beharrekoa da. Udako lehortea, eguzki-kolpeak eta sagar arrak eragindako kalteak dira arrazoietako batzuk.

- Azukreak, batez beste, 11,9 Brix gradu ditu, aurreko urtean baino 1,4 puntu gehiago.

- Almidoiaren erregresioa 2,9ko indizean dago, hau da, aurreko urtean baino 0,6 puntu beherago.

@ Informazio gehiago bildu nahi izanez gero, bisitatu webgune hau: www.sagardoarenlurraldea.eus

*Gozatu biziltzaz elkar zainduz!
Disfruta de la vida y cuídate ¡eh!*

Petritegi

Sagardoak
Denda
Upategia
Take away

Astigarraga

f i t i n s g